# XXXIV CURSOS DE VERANO EN SAN SEBASTIAN
# XXVII CURSOS EUROPEOS

***Dificultades de la juventud vasca para el ejercicio efectivo de sus derechos de ciudadanía, especialmente los ligados a la construcción de su proyecto de vida autónoma.***

Buenos días, como ya han anunciado quienes me han precedido en el uso de la palabra, a las personas que nos hemos acercado a este foro nos convoca la preocupación compartida por las dificultades que nuestros y nuestras jóvenes están encontrando para su emancipación y la construcción de sus proyectos vitales autónomos. Venimos observando cómo paulatinamente hemos ido pasando de los procesos breves y bastante lineales de hace unas décadas -favorecidos por un acceso al mercado laboral temprano, bajas tasas de desempleo y una fuerte protección laboral-, a procesos de emancipación más complejos, inciertos, erráticos, impredecibles, más reversibles, menos conexos con la integración laboral.

Esta cruda realidad no solo afecta a los sujetos activos de la misma, si no a la sociedad en su conjunto. Como ha apuntado algún autor, Antonio López, los proyectos vitales de los jóvenes son inviables, y esta inviabilidad pone en peligro incluso la legitimidad de las instituciones. El riesgo de desafección está vinculado, sin duda, a su "invisibilidad institucional" y a la falta de apoyo a través de políticas públicas.

No solo para los expertos en este tema, sino que, me atrevería a decir, para cualquier agente social, para cualquier observador objetivo de la realidad, los procesos de emancipación están profundamente condicionados por el contexto político, social y económico de cada país y momento determinado, destacándose como factores más determinantes e influidos mutuamente: el papel de la familia en la sociedad, su papel protector de la permanencia en el hogar familiar que en tiempos de bonanza económica era de libre elección y que se ha convertido en la actualidad casi de "obligado" cumplimiento, papel que debía corresponder sin duda al Estado, el contexto macroeconómico (y muy en particular su incidencia sobre el empleo), el desarrollo del Estado de bienestar y el sistema de vivienda. Debemos afirmar, sin miedo a la equivocación, que cualquier política pública que tenga por objeto facilitar la transición de las personas jóvenes, debe partir de un diagnóstico integral que englobe todos estos factores estructurales y, en función de este, plantear las medidas adecuadas.

Hablamos de diagnóstico integral no como frase al uso o "de mode", sino porque verdaderamente entendemos que solo desde una mirada amplia e integradora de todos y cada uno de ellos nos permitirá no solo el planteamiento de estas medidas, sino, lo que es más determinante, llevarlas a cabo. No podemos ver o analizar las distintas políticas públicas como compartimentos estancos, sino como un conjunto, como unos sumandos sin duda distintos pero conformadores del

resultado final. Lo que hagamos en vivienda no puede ser una medida aislada de lo que hagamos en empleo juvenil, ni tampoco lo que se refiere, por ejemplo, al periplo educativo, si nuestro objetivo es, y no puede ser otro, que facilitar e impulsar los procesos vitales autónomos de nuestros chicos y chicas.

Muchos son los temas y miradas que podríamos haber elegido para dar contenido a este curso. Podríamos decir que no son todos los que están, pero si están todos los que son.

Es evidente que nosotros no podemos abordarlo todo en el tiempo del que disponemos, por lo que hemos tenido que elegir y focalizar la atención en alguno de estos factores que, indefectiblemente, aparecerán relacionados con los otros. Dado el papel significativo del empleo y de las políticas públicas de empleo, centramos el objeto de trabajo de esta jornada en ese ámbito, con la particular mirada que caracteriza a esta institución, que no es otra que la perspectiva de los derechos. Es indudable que corren malos tiempos para la lírica, para los derechos humanos en general y para todo aquello que afectan a las generaciones futuras, pero también estamos obligados a no caer en el pesimismo y seguir trabajando, seguir apostando por ellos y ellas, por su y nuestro futuro. Porque desde las instancias públicas, y sobre todo desde estas instituciones de defensa de los derechos, no caben coartadas, solo el trabajo, la búsqueda de soluciones, la esperanza.

Por todo ello, en aras de la racionalización y efectividad del tiempo del que disponemos, de las efectivas y realistas conclusiones que de este encuentro podamos lograr, es nuestro propósito en esta jornada realizar una radiografía de la situación actual del acceso al empleo de las personas jóvenes, constatando el desfase entre ésta y la previsión constitucional del derecho al trabajo y a una remuneración suficiente. Con este claro y acotado objetivo realizaremos una aproximación al papel actual del trabajo como elemento de integración social y de acceso a la autonomía personal, conoceremos las iniciativas de la administración vasca para con el empleo juvenil y buscaremos los elementos que pudieran contribuir a la mejora de las políticas públicas de mayor impacto en estos procesos de emancipación. Es evidente que una jornada, por muy comprometida y bienintencionada que sea, no sirve para enmendar todos los déficits, pero esperamos coadyuve al diagnóstico y sea un nuevo altavoz para orientar posibles soluciones.

Nos hemos rodeado para ello de un conjunto de personas, a las que yo también agradezco su disponibilidad y buena disposición, que estamos seguros nos aportarán elementos de análisis muy relevantes para el debate, debate para el que necesitamos, en todo caso, contar con todos y todas las que participamos hoy de este foro. Os animo, pues, a sentirlo como un espacio de diálogo y una oportunidad para la contribución a la mejora de las políticas públicas.

Para finalizar, he de deciros que habría sido nuestro deseo que en esta jornada hubieran tenido cabida los testimonios directos, las voces propias de las personas

jóvenes que se encuentran viviendo esas situaciones a las que vamos a estar aludiendo a lo largo de las siguientes horas. Las limitaciones de tiempo y espacio no nos lo han hecho posible, pero no nos hemos resistido a traerles de alguna manera hasta nosotros: aquí les tenemos. Julia Hernández Valles

XXXIV. UDA IKASTAROAK DONOSTIAN
XXVII. EUROPAR IKASTAROAK

***Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak*.**

Egun on. Nire aurretik hitz egin dutenek iragarri dutenez, foro honetan bildu garen guztiok kezkatuta gaude gazteak emantzipatzeko eta bizi-proiektu autonomoak eraikitzeko aurkitzen ari diren eragozpenengatik. Duela hamarkada batzuetako emantzipazio-prozesu labur eta nahiko linealetatik -orduan goiz sartzen zen lan-merkatuan, langabezia tasak txikiak ziren eta lana sendo babesten zen-, pixkanaka emantzipazio-prozesu konplexuagoetara igarotzen ari garela ikusten dugu. Oraingo prozesuak duda-mudazkoak dira, norabiderik gabekoak, iragarrezinak, errazago alderantzikatu daitezkeenak, laneratzearekin ez hain lotuak.

Errealitate latz horrek ez die eragiten gizarteko subjektu aktiboei bakarrik, gizarte osoari baizik. Egileren batek adierazi duen bezala -Antonio Lópezek, kasu-, gazteen bizi-proiektuak ez dira bideragarriak, eta bideragarritasun ezak arriskuan jartzen du baita erakundeen legitimotasuna ere. Atxikimendurik ez izateko arriskuak lotura du, dudarik gabe, "erakundeen ikusezintasunarekin"eta politika publikoen bitartez laguntzarik ez ematearekin.

Gai horretan adituak direnentzat ez ezik, esango nuke edozein gizarte-eragilerentzat ere, errealitatearen edozein behatzailerentzat ere, herrialde bakoitzeko eta unean uneko testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoak bete-betean baldintzatzen dituela emantzipazio-prozesuak. Honatx faktorerik erabakigarrienak eta elkarri eragiten diotenak: familiak gizartean duen betekizuna, familiaren etxean geratzeak duen babes-eginkizuna (ekonomia oparoaldian, askatasunez aukeratzen zen hori eta orain ia "nahitaez" bete beharrekoa bihurtu da; eginkizun hori Estatuari legokioke, zalantza barik), testuinguru makroekonomikoa (eta nagusiki enpleguan duen eragina), ongizate Estatua garatzea eta etxebizitza sistema. Hanka sartzeko beldur handirik gabe adierazi behar dugu gazteen trantsizioa helburu duen edozein politika publikok diagnostiko oso bat hartu behar dutela abiapuntu. Diagnostiko horrek bere baitan hartu behar ditu egiturazko faktore horiek denak, eta, horren arabera, neurri egokiak proposatu behar dira.

Osoko diagnostikoaz mintzo gara, ez boladako esaldia delako edo puri-purian dagoelako bakarrik, baizik eta egiaz uste dugulako faktore bakoitzaren eta guztien ikuspegi zabal eta oso batetik begiratuta soilik proposatu ahal izango ditugula neurri horiek, eta, are garrantzitsuagoa, soilik horrela gauzatu ahal izango ditugula. Politika publikoak ezin ditugu tankan itxitako konpartimentuak bezala ikusi edo aztertu, ezpada multzo bezala; multzo horren batugaiak desberdinak izanik ere, azken emaitza osatzen dute. Gure helburua gazteen bizi-prozesu autonomoak erraztu eta bultzatzea baldin bada, etxebizitza arloan egiten dugun edozerk ezin du

izan gazte-enpleguan egiten dugunetik bereizitako neurri bat, ezta ere, adibidez, hezkuntza arloarekin zerikusia duen edozerk.

Gai eta ikuspegi ugari aukeratu genitzakeen ikastaro honen edukitzat. Esan genezake ez direla dauden guztiak, baina badaudela diren guztiak.

Begi-bistakoa da guk ezin dugula den-dena jorratu daukagun denboran; horregatik, aukeratu egin behar izan dugu eta gure arreta faktore horietako batzuetara erakarri, eta, halabeharrez, faktore batzuk beste batzuekin lotuta agertuko dira. Enpleguak eta enpleguaren gaineko politika publikoek eginkizun esanguratsua dutenez gero, batez ere arlo horretan kokatu dugu jardunaldi honen lan-gaia, erakunde honek bereizgarri duen ikuspegi berezitik –hau da, eskubideen ikuspegitik- begiratuta. Dudarik gabe, ez da bolada ona lirikarako, ez giza-eskubideetarako oro har, ezta ere geroko belaunaldiei eragiten dien edozertarako, baina ez gaitu ezkortasunak harrapatu behar, lanean jarraitu behar dugu, gazteen alde apustu egiten jarraitu, haien eta gure etorkizunaren alde. Izan ere, erakunde publikoetan eta batik bat eskubideak defendatzeko sortuak diren erakundeetan, zuribideek ez dute lekurik, lanak, konponbideak bilatzeak eta itxaropenak bakarrik dute lekua.

Horregatik guztiagatik, zentzuz eta eraginkortasunez erabili nahi dugu daukagun denbora eta topaketa honetan atera ditzakegun ondorio eragingarri eta benetakoak. Horretarako, jardunaldi honetan, gazteek enplegurako sarbidean bizi duten egoeraren erradiografia bat egin nahi dugu, eta ohartarazi zer-nolako desoreka dagoen egoera horren eta Konstituzioak lana izateko eta lansari nahikoa jasotzeko xedatuta daukan eskubidearen artean. Helburu argi eta mugatu horrekin, lanak gizarteratzeko eta nork bere autonomia lortzeko elementu gisa duen betekizunera hurbilduko gara, euskal administrazioak gazte-enplegua sustatzeko abiarazitako ekimenak ezagutuko ditugu eta emantzipazio-prozesu horietan eraginik handiena duten politika publikoak hobetzen lagundu lezaketen elementuak bilatuko ditugu. Jakina, jardunaldi bakar batean, hori konprometitua eta asmo onekoa izanda ere, ezin dira akats guztiak zuzendu, baina espero dugu diagnostikoa egiten laguntzea eta balizko konponbideak bideratzeko bozgorailu berri bat izatea.

Helburu hori erdiesteko asmoz, hainbat pertsona ekarri ditugu hona. Nik ere eskertzen diet pertsona horiei laguntzeko prest egotea, eta ziur gaude eztabaidarako aztergai garrantzitsuak emango dizkigutela. Edonola ere, eztabaida horretarako beharrezkoa dugu foro honetan parte hartzen ari garenon esku-hartzea. Beraz, jardunaldi hau elkarrizketa-gunetzat sentitzera animatzen zaituztet, politika publikoak hobetzen laguntzeko aukeratzat.

Bukatzeko, hauxe esan behar dizuet: jardunaldi honetara zuzeneko testigantzak, datozen orduetan aipatuko ditugun egoerak bizi dituzten gazteen hitza ekarri nahi genituen. Haatik, denbora eta espazio mugak direla eta, ez dugu hori lortzerik izan, baina nolabait guregana ekarri nahi izan zaituztegu: hemen zauzkategu.

Julia Hernández Valles